Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
Centro superior de música del País Vasco
musikene

Nik, Miren Artaraz Miñón andreak, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuaren Patronatuko idazkariak, fundazioaren helbidea: Europa plaza, 2 20018 DONOSTIA; fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago, F-101 erregistro-zenbakiarekin, bat eginez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 34.2 artikuluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 33. artikuluarekin (2019/08/01eko EHAAn argitaratu zen dekretua),

**HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:**

ERREGISTROKO INFORMAZIOA

**1.-** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua 2011eko ekainaren 7an eratu zen.

**2.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamenduaren Eranskinean jasotakoen artetik, honako hau da Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuaren jarduera bereizgarrienarekin bat datorren kodea: F-101.

**3.-** Eskritura publikoari fundazio-gutunaren izaera emanez eratu zen Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua. Ezarritako epearekin bat eginez, fundatzaile-izaera duten pertsonek bat egin dute ekitaldi honetan Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuarekin, hala nola Jon Bagües (ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa) eta José María Echarri Campo (Donostiako Orfeoia) .

**4.-** Fundazioaren hasierako zuzkidura 1.797.026,19 eurokoa izan zen. Zuzkidura hori oso-osorik ordainduta dago, eta, 2020 ekitaldian, hasierako zuzkidura horrek ez da ez handitu ez gutxitu.

**5.-** Jarraian zehazten diren kargu eta iraunaldiak dituzten pertsona hauek osatzen dute indarrean dagoen Patronatua:

Presidentea: Jokin Bildarratz Sorron, Hezkuntza sailburua.
Bokala: Adolfo Morais Ezquerro, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea.
Bokala: María Begoña Pedrosa Lobato, Hezkuntza sailburuordea.
Bokala: Patxi Xabier Aizpurua Telleria, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.
Bokala: Andoni Iturbe Amorebieta, Kulturako sailburuordea.
Idazkaria: Miren Artaraz Miñón, Unibertsitate Politika eta Koordinazio zuzendaria.
Bokala: Ane Urkiola Alustiza, Kudeaketa Ekonomikorako Zuzendaria .
Bokala: Miren Igone Martinez de Luna Unanue, Lege Araubide eta Zerbitzuen zuzendaria.
Bokala: Eugenio Jimenez Ibáñez, Ikastetxe eta Planifikazio Zuzendaria.
Bokala: José Ignacio Bañuelos Ibáñez, Hezkuntza Sailburuaren Kabinete zuzendaria.
Bokala: Puy Asurmendi Tellería, Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioko zuzendaria.
Bokala: Amaia Urzelai Azkune, Gipuzkoako Lurralde ordezkaria.
Bokala: Oriol Roch Izard, Esukadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari nagusia.
Bokala: Gotzon Arrizabalaga Picabea, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria.
Bokala: Isuzko Izagirre Loroño, EHME, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen presidentea.
Bokala: Pedro María Leiñena Mendizabal, Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa.
Bokala: Ibon Arambarri Etxaburua, Bilbao Orkestra Sinfonikoa.
Bokala: José María Echarri Campo, Donostiako Orfeoiaren presidentea.
Bokala: José Miguel Lanzagorta Casans, Bilboko Koral Elkartearen presidentea.

**6.-** Ez dago Patronatuaz bestelako gobernu-organorik (batzorde betearazleak, ordezko batzordeak, etab.).

**7.-** Honako pertsona hauek dute ahalordetze orokorra indarrean:

**Kargua**

- Miren Iñarga Echeverria andrea, Zuzendari Nagusi eta Akademikoa
- Juan María Juaristi Lizarralde jauna, Zuzendari Kudeatzailea

**8.-** Indarrean dauden estatutuak 2019ko apirilaren 30eko aldaketaren bidez onartu ziren. Estatutuok Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legera egokituta daude.

**9.-** Eratu zenez geroztik, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua ez da izan bat egiteko, zatitzeko, desegiteko, likidatzeko edo eraldatzeko eragiketarik.

BABESLETZAREKIN DAUDEN BETEBEHARRAK

**1.-** 2020an amaitutako urteko ekitaldian, ez da gauzatu xedatze- edo kargatze-egintzarik, ez da parte hartu merkataritza-entitateetan, eta ez da onartu herentzia, legatu eta donaziorik, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen 9/2016 Legearen 26, 30 eta 27. artikuluetan xedatutako moduan.

**2.-** 2020an amaitutako urteko ekitaldian, ez zaie autokontratazioirik egin ez patronatukideei, ez haien ordezkariei, ez eta patronatukide edo ordezkariarekin lan-harremana, pertsonala, familiakoa edo negozioetakoa duten hirugarrenei ere. Horrez gain, adierazitako ekitaldi horretan, fundazioarekin kontratu-lotura duen ezein pertsona fisiko edo juridiko ez da egin Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuaren. Patronatuko kide, bat eginez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 36. artikuluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 11. artikuluarekin.
X

**3.-** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua behartuta dago 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak ikuskatzera, honako baldintza hauek betetzen dituelako:

| | |
|---|---|
| ❖ Tamainaren ondoriozko betebeharra: Behartuta dago balantzea egitera eredu normalaren arabera (KSLTB, 257. art.) | X |
| ❖ Dena delako ekitaldian, 600.000 eurotik gorako diru-laguntzak edo laguntzak jasotzea, administrazio publikoen aurrekontuen edota Europar Batasuneko funtsen kargura; edo, ekitaldi horretan, aipatutako laguntza edo diru-laguntzei dagozkien inbertsioak edo horrekin lotutako eragiketak egitea. | X |
| ❖ Sektore Publikoarekin 600.000 eurotik gorako kontratuak egitea, eta kontratuon zenbatekoa urteko negozio-bolumenaren zenbateko garbiaren % 50 baino handiagoa izatea. | |

❖ Ondoz ondoko bi urtetan, gutxienez honako baldintza hauetako bi bete ditu:

| | | |
|---|---|---|
| a) Balantzearen aktiboko partiden guztizkoa 2.400.000 eurotik gorakoa da. | X | X |
| b) Emaitza-kontuan agertzen diren jarduera propioaren diru-sarrerak | X | X |

eta merkataritza-jardueraren salmentak eta beste diru-sarrera batzuk 2.400.000 eurotik gorakoak dira.

c) Bere kabuz enpresa-jarduerak egiten ditu, edo % 5etik gorako partaidetza dauka bazkideen erantzukizuna mugatua duen edozein sozietatetan. ☐ ☐

d) Ekitaldi ekonomikoan enplegatutako langileen batez besteko kopurua 50etik gorakoa da. X X

e) Ekitaldi ekonomikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 26. artikuluan zehazten diren xedatze- edo kargatze-egintzak egin dira fundazioaren ondasun eta eskubideen gainean, eta horien zenbatekoak gainditu egiten du onetsitako urteko azken balantzetik ateratzen den aktibo ez-korrientearen % 30. ☐ ☐

f) Fundazioak merkataritza-sozietateetan duen partaidetza ordezkatzen duten tituluen balioa handiagoa da balantzearen aktiboak duen balio guztiaren % 50 baino. ☐ ☐

g) Fundazioaren balantzearen aktiboko partiden balio guztiaren % 50, gutxienez, erakunde publikoetatik dator edo haien ekarpena da. X X

h) EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 36. artikuluan aipatutako kontratuaren edo kontratuen prezioa ekitaldiko gastu guztien % 15 baino handiagoa da. ☐ ☐

**4.-** 2020an amaitutako urteko ekitaldian, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua jotzen da EAEko Sektore Publikoko fundaziotzat, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua sektore publikoak izendatu behar dituelako gobernu-organoko kideak. Horrez gain, baldintza hauetako bat betetzen da:

a) Zuzkiduraren % 50 baino gehiago euskal sektore publikoak jarria da. X
b) Haien fundazio-ondarea, bere balioaren % 50ean baino gehiagoan, euskal sektore publikoak emandako ondasun edo eskubidez osatuta dago modu iraunkorrean. X

**5.-** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuak bete du nahitaezko liburu hauek elektronikoki legeztatzeko betebeharra:

| | **Legeztatutako azken ekitaldia** |
|---|---|
| • Akta-liburua | 2020 |
| • Kontu-liburua | 2020 |
| • Liburu egunkaria | 2020 |

**6.-** 2020an amaitutako urteko ekitaldian Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuak egin dituen jarduerak agiri hauetan zehaztuta daude (honako hauek adierazten dira: zer baldintza eta inguruabarretan egin diren, bakoitzak zer eta zenbat helburu izan duen, eta jarduerak propioak edo merkataritzakoak diren):

☐ I. ERANSKINA
☒ Urteko kontuen memoriako 4 oharrean (6-11 or.), I. ERANSKINean azaldutako modu berean.

**7.-** 2020an amaitutako urteko ekitaldian Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuak egin dituen jarduerei dagokienez, honako agiri hauetan zehazten da jardueretan zenbat giza baliabide erabili diren (batez besteko soldatapeko langileak, zerbitzu-kontratua duten langileak eta batez besteko boluntarioak diren adierazita), baita jarduerak zenbat onuradun edo erabiltzaile fisiko nahiz juridiko izan dituen ere:

☐ II. ERANSKINA
☒ Urteko kontuen memoriako 12 oharrean (18 or.), II. ERANSKINean azaldutako modu berean.

**8.-** Diru-sarrerak fundazio-xedeetarako erabiltzeari dagokionez, honako agiri hauetan zehaztuta daude diru-sarrera eta inbertsioen informazioa (inbertsioen finantzaketa-iturria adierazita), fundazioaren helburuetarako diru-sarreren % 70aren kalkuluaren oinarria, eta oinarritik kendu diren gastuen eta fundazio-xedeei aplikatu beharreko saldoen gaineko xehetasunak:

☐ III. ERANSKINA
☒ Urteko kontuen memoriako 13 oharrean (19-20 or.), III. ERANSKINean azaldutako modu berean.

**9.-** Administrazio-gastuetarako erabil daitekeen gehieneko zenbatekoari dagokionez, honako agiri hauetan zehaztuta dago administrazio-gastuen informazioa (kontuen araberako banakapena eta emaitza-kontuaren partida barne), baita gastua administrazio-gastu gisa egozteko irizpidea ere:

☐ IV. ERANSKINA
☒ Urteko kontuen memoriako 12 oharrean (19 or.), IV. ERANSKINean azaldutako modu berean.

**10.-** Inbentarioari dagokionez, honako agiri hauetan zehaztuta dago ondasun, eskubide, betebehar eta bestelako partiden deskribapena; zenbatean eta noiz eskuratu diren; kontabilitate-balioa; balorazioan izandako aldakuntzak; narriatzeagatik eta amortizazioengatik izandako galerak eta bestelako partida konpentsatzaileak; eta besterentze- edo kargatze-egintzen ondorioz ondarean izandako aldaketa guztiak (horrek guztiak xedeak zenbateraino betetzen dituen ere adierazten da):

☐ V. ERANSKINA

[X] Urteko kontuen memoriako 4. oharrean (6-8 or.), V. ERANSKINean azaldutako modu berean.

**11.-** Honako agiri hauetan zehazten da fundazioaren organo bakoitzak ekitaldia ixtean dituen kideen zerrenda, sexuaren arabera banakatuta:

[ ] VI. ERANSKINA

[ ] Urteko kontuen memoriako …… oharrean (…… or.), VI. ERANSKINean azaldutako modu berean.

Eta, dagozkion ondoreak izan ditzan, honako agiri hau egin eta elektronikoki sinatzen dut, Gasteizen, 2021eko maiatzaren 20an.

MIREN ARTARAZ MIÑON - 16269492M
Firmado digitalmente por MIREN ARTARAZ MIÑON - 16269492M
Fecha: 2021.05.20 09:41:41 +02'00'

MIREN ARTARAZ MIÑÓN and.
IDAZKARIA

JOKIN BILDARRATZ SORRON - 15960103N
Firmado digitalmente por JOKIN BILDARRATZ SORRON - 15960103N
Fecha: 2021.05.20 09:52:45 +02'00'

JOKIN BILDARRATZ SORRON jn.
PRESIDENTEA